


Zer da trikuharri bat?

Trikuharria eraikuntza protohistoriko bat da, lurlean zutik finkaturiko harlauza handiekin eta ganean pausatutako beste harlauza batekin eraikia. Hilobi bat zen, gehienetan ekialde-mendebalde ardatzean orientatua, eta irekidura eguzkia ateratzen den aldera zuzendua zuen. Tumulu deitzen zaion harri edo lur meta batek babesten zuen eraikina. Trikuharriak gorpuak ehorzteko erabiltzen ziren monumentuak ziren, mende luzez erabiliak izan zirenak.

Dolmen handiak harlauza megalitikoekin eraikiak dira, baina Urruñan, trikuharri kutzak ditugu batez ere, harlauza txikiagoekin eginak direnak.






Zein da trikuharrien historia Euskal Herrian?

Lehen trikuharriak K.a. 5 000. urtean egin ziren eta 2000 urtez eraiki eta baliatu ziren mota ezberdinetako trikuharriak. K.a. 3000. urtean trikuharri pasarteak agertu ziren eta K.a. 2500. urtera arte baliatu ziren. Ondotik, progresiboki, eraikuntza geroz eta txikiagoak egiten joan ziren eta azkenean, trikuharri kutzak orokortu ziren.

	-4000	-2000 Kobrea artea	-1800 Brontze artea	-600 Burdin artea
Mesolitoa	Neolitoa		Metalen artea edo Protohistoria	
			Ehorztea (Trikuharriak)	Erraustea (Harrespilak)

Trikuharri adibide batzuk:



Zer dira harrespilak?

Harrespilak edo mairu baratzeak, tumulu-harrespilak eta tumuluak errausketa errituari lotuak dira eta pertsona bakar bati zuzenduak dira, trikuharrien kasuan ez bezala. Monumentu hauek lepoetan, ordokietan eta, batez ere, mendi gainetan atzematen dira. Arkitektura ezberdinak izan ditzakete.

- Harrespila lurlean bertikalki kokatuak diren harri edo harlauzez osaturiko zirkulua da.
- Tumulua harrizko edo lurrezko meta bat da, kupula forma duena.
- Tumulu-harrespila tumulu bat inguratzen duen harri zirkulua da.

Erdigunean egur-ikatzak, errauskak eta lur zatiak atzematen dira, nahasirik. Errauskak zuzenean lurlean ezartzen ziren, edo kasu batzuetan, harlauzez edo harri idorrez eraikitako kutxa txiki batean. Ez da ohikoa giza hondarrak hezur erre forman atzematea, eta ikusirik gehienetan atzematen diren errausken kantitatea apala dela, eta batzuetan ez dela batere, pentsa daiteke monumentu hauek oroitarrak direla, eta ez hilarriak.

Monumentu hauen barnean ez da deus atzematen. Protohistoriako objektuak gutxi izan ohi dira eta gehienetan pobreak, beraz ez luke zentzurik hemen garaiko objektuak edo altxorrak xerkatzeak...

Manddaleko harrespila (Urruña)



Okabeko harrespila (Mendibe)

Zein da harrespilen historia Euskal Herrian?

	-4000	-2000 Kobre aroa	-1800 Brontze aroa	-600 Burdin aroa
Mesolitoa	Neolitoa	Metalen aroa edo Protohistoria		
		Ehorztea (Trikuharriak)	Erraustea (Harrespilak)	


Monumentu hauek protohistorikoak dira. Neolito garaian eraiki zituzten, duela 5000 urte inguru. Ez dute deus ikustekorik denboran gugandik askoz hurbilago diren zibilizazio zeltikoko druidekin.

Harrespila baten sortzeko prozesuaren adibidea:


Egur metaren osaketa



Hildakoaren erraustea



Harrespilaren eraikitzea



edo tumulu baten eraikitzea

